BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

204

EBAZPENA, 2014ko azaroaren 17koa, Industriako sailburuordearena, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2009ko urriaren 20ko Aginduan ezarritako laguntzak 2014ko ekitaldian jaso dituzten entitate onuradunen zerrenda argitaratzeko dena; aipatutako agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan aurrekluster sektorialtzat jotzen diren enpresa-elkarteei bideratutako laguntzak arautzen dira.

Diru-laguntza publikoak emateko orduan ezinbestean bete behar da publizitatearen printzipioa. Hori dela eta, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2009ko urriaren 20ko Aginduaren babesean emandako laguntzen onuradunei banan-banan egin beharreko jakinarazpena egin zaienez, ebazpen honen bidez onuradunen zerrenda argitaratuko da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. Aipatutako aginduaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoan aurrekluster sektorialtzat jotzen diren enpresa-elkarteei bideratutako laguntzak arautzen dira.

Hori horrela, aurreko paragrafoan adierazitakoarekin bat etorriz, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Xedea.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2009ko urriaren 20ko Aginduan ezarritako laguntzei dagokienez, 2014ko ekitaldian onuradun izan direnen zerrenda argitaratzea. Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan aurrekluster sektorialtzat jotzen diren enpresa-elkarteei bideratutako laguntzak arautzen dira.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko azaroaren 17a.

Industriako sailburuordea,
JUAN IGNACIO GARCÍA DE MOTILOA UBIS.

ERANSKINA

Entitate onuraduna	Diru-kopurua
«AFV» Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Urtzaileen Elkartea	94.225,00
Euskadiko Elikaduraren Klusterra Enpresa Elkartea.	10.167,00
«BBC» Basque Bioscience Cluster Elkartea	63.726,00
«Habic» Habitat, Egur, Bulego eta Contract-eko Sektorearen Kluster Elkartea	86.377,00
«Eraikune» Euskadiko Eraikuntzaren Kluster Elkartea.	24.721,00
«Herramex» Esku Erreminten Fabrikatzaileen Espainiako Elkartea	54.479,00
«Siderex» Siderurgia Produktu eta Instalazioen Esportatzaileen Espainiako Elkartea	81.394,00
«SIFE» Estanpazio bidezko Forja Industrien Elkartea	59.825,00
«MLC ITS» Euskadiko Mugikortasunaren eta Logistikaren Kluster Elkartea	20.926,00
«Langune» Euskal Herriko Hizkuntz Industrien Elkartea	15.395,00
«Mafex» Treneko Material, Ekipo eta Zerbitzuen Espainiako Fabrikatzaileen Elkartea.	88.764,00
GUZTIRA	599.999,00